

BERRIGARA

4. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, azaroak 8



Industria gune berria



Autopulmans Araba S.L.


Angiozar auzoa, 3 BERGARA

AUTOBUSAK

Telefonoa: 76 55 70

Era guztietako bidaietarako autobusak: sagardotegi, ezkontza, bodega, ikasketa bidaia, despedida, lantegi, eskola...

ESKA EZAZU AURREKONTUA!!



LILURA

Edertze Institutua

DEPILAZIO PROGRESIBOA

- Akabo ileak!!
- Aste gutxitan antzemango duzu diferentzia.
- Eroso eta seguru sentitzeko.

Informazio gehiago, Bidekurutzeta 7an. Telefonoa: 76 31 71

AZAROAN

SEKULAKO DESKONTUAK!!

ZATOZ ETA GALDETU!!

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxe: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkorobereibar
Jone Larrañaga
Aitziber Azkondo

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza
Miguel Angel Elkorobereibar
Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodríguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.200 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ANTONIO ZABALA

Forum Cinematographe-koa

- Badirudi zinezale taldearen funtzionamenduan aldaketa batzuk egin dituzuela...

- Hasitako bidea jarraitzeko asmoa daukagu baina ezinezkoa zaigu hileroko sesioekin jarraitzea, proiektioetan jasotako erantzun eskasaren ondorioz arazo ekonomikoak izan direlako. Horrez gain, gure proiektua aurrera eramateko oso jende gutxi gabiltza (lau bat lagun besterik ez), proiektioen egunak eta orduak aukeratzeko mugak izan ditugu eta, era berean, proiektioetan uste baino arazo tekniko gehiago izan dira.

- Hala ere, zine klasikoak eskeintzen jarraituko duzue?

- Hori da gure asmoa baina proiektioen kopu-



rua sesio mugatu batzuetara gutxitzea erabaki dugu. Etapa berri honen lehendabiziko emanaldia Gabonetan egin nahi genuke eta gustatuko litzai-guke, ikuslegoaren alde-tik, erantzun hobea jasotzea. Oraindik ez dugu zehaztu zein filme ekarriko dugun. Hala ere, proiektioetan akatsik ez izatea zihurtatu beharko dugu aurretik.

"Hileroko emanaldiak alde batera laga beharrean aurkitu gara"

I T U R R I O N E T I K

Justo Garate beka Marta eta Susana Truchuelo ahizpa andoaindarrentzat

Marta eta Susana Truchuelo Garcia ahizpa andoaindarrei adjudikatu zaie aurtengo Justo Garate Bekaren edizioa. Bostgarren edizio honetara lau proiektu aurkeztu dira eta epaimahaiak Historian lizentziatutako Marta eta Susanaren "Tolosa eta Diputazioa: oligarkia baten eraketa eta sendoketa. XVI eta XVII. mendeak" izenburuko lana aukeratu du. Gainontzeko lanak hainbat bergararrek landutakoak ziren. Oraingoz lehen edizioako lana argitaratu da bakarrik, Rosa Ramosek Nafarroako egoera demolingüistikoari buruz egindako ikerketa hain zuzen ere.

E S A N
D U T E

"Aznar eta Arzalluzen arteko paktua naturala? Hasiera batean, bai.

Transizioan, Arzalluzek mitin bat eman zuen Oñatin eta nire lana goraiatu zuen. Gero gutun bat bidali nion eskerrak emanaz eta aldi berean

adierazten nion oso gogoan neukala Sissyren pelikula bat, non printzipea artzain batez maitemindu zen. Idilioak porrot egin zuen Estatua zela medio, eta epilogoia betikoa zen:

"... oraingoa ere ulertezintasunak eta harrokeriak maitasun istoria ederra zapuztu dute". Eta gero "Danubio urdina" jotzen zuten. (...) Bizitzan, une batean hordago bat bota beharrean izaten gara. Gerra Inzibileko Estatutua sortu aurretik ere ia hila zegoen, eta niretzat oraingoa gaindituta dago jadanik. Nik Francori berari ere esan nion autodeterminazioa eman behar zela; zirkunik ere egiten ez zuen horietakoa zen baina, entzun egiten zuen eta kitto"

REYES KORKOSTEGI
Oñatiko alkate
izandakoa
EL DIARIO VASCO

**LA CANCION DE CARLA**

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**LA TIENDA**

Barikua: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30.

**RICARDO III**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Ken Loach** zuzendariak (*Agenda oculta, Tierra y libertad*) Eskozian eta Nikaraguan girotutako amodiozko istorioa errodatu du oraingoan. *George* autobus gidari eskoziarrak (**Robert Carlyle**) Glasgowra heldu berri den *Carla* (**Oyanka Cabezas**) errefuxiatu nikaraguarra ezagutuko du. Bien bitartean, 87an, gobernu sandinista kolokan dago...

▼▼ **Stephen King** idazle ospetsuaren nobelan oinarritutako filmea egin du **Fraser C. Heston** zuzendari iparamerikarrak. CastleRock herrira *Leland Gaunt* (**Max Von Sydow**) atzerritar misterioista helduko da. *Gauntek* denda bat zabalduko du herritarren mesederako baina arazo bakarra ezarritako prezio altuak dira. *Gauntek* tratu bitxia egingo du erosleekin...

▼▼ **Richard Loncraine** zuzendari onenaren saria eskuratu zuen aurtengo Berlingo jaialdian **Shakespeare** idazlearen lan ezaguna egokitzeagatik. 1930eko Ingalaterran kokatuta, boterearekin obsesionatuta dagoen Ricardo III.aren istorioa azaltzen zaigu. **Annette Bening**, **Robert Downey Jr.** edo **Nigel Hawthorne** aktoreen partaidetzarekin.

Deiak

▼ **1951n** jaiotako bergararren afaria Antxonin azaroaren 30ean. Izen-ematea Antxonin bertan.

▼ **1944an** jaiotako bergararren anaiarteko eguna azaroaren 30ean. Arratsaldeko 7etan meza Santa Marinaran eta 9etan afaria Azpeitxi jate-txean. Izen-ematea azaroaren 18a baino lehen 76 28 33 (Elisa Ugarte), 76 42 42 (Jesus Aperribai), 76 42 08 (Arantza Alberdi), 76 23 70 (Sanchez) edo 76 13 61 (Mari Karmen Garitano) telefonoetan.

▼ **1957an** jaiotako bergararren afaria Zumelaga jatetxean azaroaren 30ean. Izen-ematea (1.000 pta.) Intxorta tabernan.

▼ **Matinala.** *Mision imposible* domekan 11:30etan Novedadesen.

Ogia

▼ **Domeka 10:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 8:** Guallar.
- ▼ **Zapatua 9:** Puy.
- ▼ **Domeka 10:** Puy.
- ▼ **Astelehena 11:** Estella.
- ▼ **Martitzena 12:** Mozos.
- ▼ **Eguaztena 13:** Camacho.
- ▼ **Eguena 14:** Puy.

Garnish**Bitxitegia**

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

AGIRREBEÑA**oinetakoak
arropa denda
lenzeria**

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

ONENA**TINTATEGIA**

Barrenkale, 29 BERGARA

Rocka eta Bluesa

Zapatuan eta domekan kontzertuak Jam aretoan

Astebukaera honetan bi kontzertu izango dira Jam areto berrian. Zapatuan, gaueko 10etatik aurrera, Girls Against Boys, Deus eta Evil Superstar taldeen emanaldia izango da. Kontzertu horretako izarra Girls Against Boys talde iparramerikarra izango da. New Yorkeko talde honek "House of GVSB" izenburuko disko berria kaleratu du. Scott Mc Cloud taldeko kitarra eta abeslariaren hitzetan, "oso pozik gaude lortutako emaitzarekin. Denbora gehiago izan dugu disko hau lantzeko eta sample eta bestelako tresnekin esperimentatzeko aukera izan dugu".

Diskoak kritika onak jaso ditu prentsa espezializatua eta talde iparramerikarraren jarraitzaileen artean. Girls Agains Boys taldeak hainbat emanaldi eskeini ditu Estatuan eta iaz ere Bartzelonan izan ziren. Garatze aretoan bildutako jarraitzaileek primeran pasa zuten euren musika-kañeroarekin. Biharko kontzerturako sarrerak 1.800 pezetan eta 2.000 pezetan (takilan erosiz gero) jarriko dira salgai.

Eta domekan, oster,



Girls Agains Boys talde iparramerikarra izango da zapatu gaueko izarra.

Short Fuse eta Bill Thomas Band taldeen blues emanaldia izango da arratsaldeko 8etatik aurrera. Jam aretoak estilo ezberdinetako musika kontzertuak antolatzeko asmoa dauka eta bihar blues jarraitzaileen txanda izango da. Sarrerak 1.000 pezetan salduko dira.



70eko hamarkadako festa gaur

Bestalde, gaur, ostirala, 60 eta 70 hamarkadetako rock & roll jaia izango da. Garai horretako jantziekin mozarrotuta joaten direnentzako sariak izango dira eta, era berean, Kubarako bidaiari zozketatuko da bertan bildutakoen artean. Hurrengo astebukeraren ere beste bi kontzertu izango dira: ostiralean Cult taldeko abeslaria izandako Ian Ashbury-ren

Holy Barbarians taldearen emanaldia izango da eta zapatuan Pleasure Fuckers gonbidatutako beste bi talderekin batera.

Azkenik, azaroaren 30erako iragarrita zegoen Texas Tornados-en kontzertua bertan behera geratu da, Flaco Jimenez taldeak bere jira atzeratu duelako. Jam aretoko arduradunek Berrigarari esan diotenez Texas Tornadosen emanaldia apirila aldera izango da Bergaran.

Zapatuko kontzertuko sarrerak 2.000 pezetan jarriko dira salgai; domekakoak, 1.000 pezetan.

Kizkur
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Aldoka
Maldoka
TABERNA
 Krüz Gallastegi BERGARA

Pepelu
Ilepaindegia
 Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

Eibar-Gasteiz autopista

Hainbeste aldiz izena aldatu dioten autopista egitasmo erasokora honen inguruan aurreko astean bi komunikabide desberdinetan bi bergarrek eginiko adierazpenak kontrastatzea nahiko genuke. Lehena Berrigarako kolaboratzaile batek "Beraiek diño" sailean azaldutakoa da; bigarrena, Victoriano Gallastegi alkateak "El Diario Vasco"n eginiko adierazpen batzuk. Biok autopistaren aldeko jarrera zuten, beraiendako argumentu nagusia garapen edo desarrollo ekonomikoarena da. "Garraioko azpiegiturak ez dute, huts-hutsean, garapenik sortzen". (Esaldi hau indarrean dagoen Errepide Plan Orokorrean azaltzen da Eusko Jaurlaritzan). Gure ustetan ekonomia ez da garraioaren arabera hazten. Beste batzuen artean eragina duen faktore bat izango da baina inolaz ere ez "oinarrizkoa / hil ala bizikoa".

Badira garapen ekonomiko bultzatzeko asmoarekin eraikitako autopistak gerora industri porrota ekarri dutenak. Adibideak ez dira falta: urteak dira Deba Behean autopista daukatela (A-8). Konpondu al ditu horrek arazo ekonomikoak? Audio ezin hobeto komunikaturik dago (2 autobide, 2 aireportutik gertu, superportutik gertu) eta halere krisi ekonomikoak jota, langabeziaren tasa izugarria %40ra heltzen da.

Lotsagarria da berpizte ekonomikorako plan orokorrik ezean autopistaren eraikuntza eskeintzea, heldu beharreko iltze gorria baitzen. Agintean dagoen modeloak orain arteko krisialdi latzenera eraman gaitu, bai ekonomikoki, bai sozialki (%25eko langabezi tasa) edota ingurugiroarena. Ez al da irtenbi-

de erreala sartu eta gehiengoa engainatze-ari uzteko garaia, korrupzio politikoa eta gutxiengo baten aldeko onurak bukatzekoa?

Autopista dirugaltze izugarria da, 100.000 milioiko aurrekontua du (bukatu orduko 2-3 aldiz gehiago ez ote da izango?), kilometroa 2.000 milioi baino gehiago kostatuko da, metroa 2 milioi baino gehiago.

Arazoi kontaezinak daude autopistaren aurka azaltzeko: bailarako barne trafikoaren beharrei ez erantzutea, N-1 eta A-8 / A-68 (Behobia-Bilbo-Gasteiz-Miranda) ardatz nagusietatik iragarotzen den nazioarteko trafikoa artifizialki erakarri nahia, ingurugiroari, nekazari eremuari, ondare historiko kulturari eta bizi kalitateari egiten zaien kalte onartezina, finantziarako peajea jartzea eta A-8 autopistaren peajea luzatu beharra.

Baina geure asmoa ez da ezezkoaren abanderatuak izatea, horregatik guk defenditzen duguna gaur egungo errepidea sakoan hobetzea da Leintz-Gatzaga Landa herrietako biztanleek aurkeztutako proposamena geure eginaz, hau herriratzeko eta defenditzeko konpromezua hartu dugu.

Gure bailararen alde, autopistari ez!

AITOR ARANZABAL (HBKO ZINEGOTZIA)

Behobia Txikia

Urriaren 25ean ospatu zen 1. Behobia Txikia, Bergarako antxintxikalariek antolatuta. Ez zen karrera bat izan: 53 antxintxikalari elkartu ginen piszinen aurrean eta, trenbide zaharren bidetik, Sorluzeraino joan ginen denok batera. Han atsedendalditxo txiki bat egin eta bueltan etorri ginen. Erritmoa oso lasaia


izan zen eta primeran pasatu genuen. Dutzatu eta luzaketa batzuk egin ondoren Piszinetako tabernan bazkaldu genuen, eta kafearekin batera kopa bat eman zitzaion ibilaldiko "irabazle" sinbolikoari, antxintxikalarien artean hain estimatua den Karlos Telleriari. Ibilaldi honen helburu nagusia, beti geure kasa ibiltzen garren antxintxikazaleok elkartzea da, leihaketarik gabe eta presarik gabe. Leihaketarako badago bestela ere astia eta tokia.

Bigarren helburua, hainbeste antxintxikalari berrik Behobia-Donostian urtero parte hartzen duenez, hamabost egun lehenago entrenamentu luze bat egitea, gero lasterke-ta egunean sorpresarik ez egoteko eta esperientzia txar bat bezala ez gogoratzeko. Behobia-Donostia proba gogorra da, eta errespetua hartu behar zaio joan aurretik.

Eta hirugarrena, baina ez txikiena, ondorengoa: Oso leku ederra da trenbide zaharra pasiatzeko eta antxintxikarako. Beti dago ibiltariz beteta. Baina bastante egoera txarrean dago: zuloak nonahi, Etxebarritta baxerri parean porlanezko azpi latza eta desberdina, argirik ez... Pena da bidea horrela eukitzea. Ez da gastu handia, eta uste dugu udalaren zeregina dela, lurra "todo-uno"z edo beste material batez berdintzea; eta argiari dagokionez, Osintxutik Bergara artean behintzat, argi batzuk jartzea. Ez da bonbilla askoren beharrik, fabrika inguruetan argia badago eta. Ea datorren urtean jende gehiago animatzen den Behobia Txikian parte hartzera, eta ea ordurako udala ere animatzen den konponketa lanak egitera. Gu laguntzeko prest gaude.

ANTXINTXIKALARIK

Tiira biraka



ALEX UGALDE



Hika ikastaroa

Jardun elkarteak antolatuta, Hika ikastaroa izango da Garaion (Araba) azaroaren 23 eta 24ean. Bazkideek 3.000 pezeta eta gainontzekoek 3.500 ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea azaroaren 20a baino lehen Jardunen, 76 08 19 eta 76 36 61 telefonoetan.

Udal Gobernuaren salaketa

Udal Gobernu Batzordeak urriaren 21ean egindako bilkuran, Simon Arrieta plazan Kutxak duen bulegoan egindako "ekintza basatia publikoki salatzea" erabaki zuen. Proposamen hau aho batez onartu zuten Batzordea osatzen duten sei batzarkideetatik bertaratutako lauk.

Erakusketa

Nerea Zapirainen margo erakusketa azaroan zehar Nahikari tabernan.

HILDAKOAK

Silvestre Bolibar Iribekanos

Azaroak 1, 77 urte.

Pilar Elorza Aristi

Azaroak 2, 92 urte.

JAIOTAKOAK

Leire Sanz Cid

Urriak 30.

Ion Azkarate Madinabeitia

Azaroak 1.

Istiluak presoen inguruko Plenoaren ostean

Asteleheneko Plenoaren amaieran hainbat istilu izan ziren plazan bildutako herritar talde baten eta Victoriano Gallastegi alkatea eta Koldo Pereira zinegotziaren artean. Gallastegik eta Pereirak, Batzokira bidean, herritar talde baten irainak eta bultzakadak jasan zituzten presoenguruan EAJk aurkeztutako mozioan HBk proposatutako puntu bat ez gehitzeagatik.

EAJk Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak (EAJ, EA, IU eta HBren oniritziarekin) onartutako testua ekarri zuen Plenora, presoak gerturatzeko plan bat proposatuz. HBko zinegotziek, berriz, beste puntu bat gehitzea proposatu zuten, hitzetatik ekintzetara pasatzea eta presoengururaino egiteko alderdi politikoetako, Gestoretako eta Senideetako ordezkariekin batzorde bat osatzea eskatzen zelarik. Mozioa aztertzeke atsedenaren ondoren, lehenbizi HBren proposamena aztertu zen eta EAJ, EA eta PSE-EE kontra azaldu ziren. Ondoren, EAJren mozioa onartu zuen tripartitoak HBren ezezko botoare-



Goiko estazioko etxea botatzea erabaki zen plenoan.

kin. Boto esplikazioan, alkateak udal batzordea osatzearen kontrako iritzia eman zuen Eusko Legebiltzarrean presoengururaino eskakizunak tramitatzeko batzordea badagoelako. Alvaro Esparzak, berriz, nahiz eta PSE-EE alderdia Eusko Legebiltzarreko testuaren kontra azaldu, EAJren mozioa onartu eta bahiturik dagoen Ortega Larrentzat presoentzat eskatzen diren eskubide berak aldarrikatu zituen. HBk, bestalde, udal gobernuaren borondate falta salatuz, hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua dela esanez.

Pleno aretoan bildutako presoengururaino senideak eta lagunak alkatearekin ez-

tabaidan hasi ziren eta alkateak bukatutzat eman zuen Plenoa. Ondoren, Plazan, 50 lagun inguru alkatearen zain geratu ziren eta hasieran aipatutako istiluak etorri ziren. Pankarta batekin inguratu zituzten alkatea eta Pereira zinegotzia eta "PNV carceleros" eta bestelako oihuekin iraindu zituzten.

Goiko estazioa

Bestalde, Plenoeko beste puntu batean, Zumarragako trenbide zaharreko geltokia botatzeko 445.595 pezetako aurrekontua onartu zen EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko eta HBren kontrako botoekin.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Komite Internazionalistak

Komite Internazionalistak taldeak 1996/97 denboraldiko solidaritate kanpaina gertatzeko bilera egingo du astelehenean, hilak 11, 19:30etan Kultur Etxean. Interesatu guztiei bertara joateko deia egiten zaie. Bestalde, Lili hurakanak Kuban eragindako kalteen inguruan, SOS Kuba izeneko kanpaina jarri dute martxan Komite Internazionalistek. Interesatuak Euskadiko Kutzako 3035 0065 71 0650026694 kontu zenbakian eman dezakete dirulaguntza.

Taun-Taunen hurrengo emanaldiak

Taun-Taun txotxongilo taldeak "Ubu babel" bere azken lana antzetzuko du Gasteizeko Bernar Etxepare aretoan asteartean, hilak 12, arratsaldeko 8etan. Bestalde, hilaren 15ean Getxon izango dira eta 17an, berriz, Bilboko Antzerki Jaialdian.

Mendi irteerak

Pol Pol Mendizale Taldeak eta Gorla Alpinok nagusientzat Beruete-Ezkurra gaina mendi irteera antolatu dute azaroaren 17rako. Egun guztirako izango da eta irteera goizeko 7:30etarako Frontoian iragarri da. Izena emateko epea hilaren 14ean amaitzen da eta prezioa 3.000 pta.koa da. Bestalde, 14 urtetik gorako gazteentzat Deskarga-Arrola mendi irteera antolatu du Pol-Polek hilaren 17rako. Interesatuak Pol-Poleko bulegoetan eman dezakete izena. Pol-Poleko ski sailak, azkenik, urte osorako ski bonoak salgai jarri ditu dagoeneko.



Konponketa lanak hasteko oraindik eperik ez da jarri.

Egino-Mallea etxeko fatxada konpontzeko txostena egin da

XVI. mendeko etxearen fatxada egoera kaskarrean dago

Xabier Aranburu udal museologoak Barrenkale eta Masterreka bitartean dagoen Egino-Mallea etxearen egoerari buruzko txostena aurkeztu du Hirigintza Batzordean. Egino-Maileako fatxada egoera txarrean omen dago eta bertan berrizte lanak egiteko beharra azpimarratzen da txostenean. Xabier Aranbururen hitzetan, "fatxada oso gaizki dago, zatiak erortzen eta kaskatzen hasi dira. Pena ematen du balio artistiko haundiko fatxada delako, XVI. mendekoa da eta borrelako fatxada gutxi daude. Udal Biltegian gordeta dagoen Zabala etxeko fatxada ere garai berdinekoa da, berpizkunde garai-koa". Egino Mailea Andres Garcia Egino eta Marina Lopez Maileak

eraiki zuten XVI. mendean.

Txostenean fatxada berrizteko jarraitu beharreko pausuak zehazten dira. Udal museologoak Berriagarari adierazi dionez, "fatxada kontu haundiz produktu kimiko batzurekin garbitu behar da zikin-keria ateratzeko. Bestalde, barria nabiko kaskatuta dagoenez, barria kontsolidatzeko lanak egitea ere komeni da, errestauratuz eta falta dena jarritz".

Txostena Hirigintza Batzordean aztertu ondoren Mankomunitatera bidali da lanen aurrekontua Sura-desak egin dezan. Hirigintza Batzordea aurrekontu horren zai dago, dirulaguntzak eskatu eta etxearen jabeekin batera berrizte lanak egiteko.

LAN AUKERA
KAMARERA kontratatu nahi
da KOMEDOREAN LAN
EGITEKO. Esperientziaduna.

Interesatuak deitu telefono
 honetara: 76 20 40

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3 Ibargarai, 8
 ☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

Ikasle elbarrituak kirol jadueretara hurbiltzeko plana

Deba Garaian 90 ikasle elbarritu daude; Bergaran 35

Ezgaitasuna duten mankomunitateko ikasleak kirol jardueretara hurbiltzeko programa landu du Deba Garaiko Mankomunitateak. Helburu nagusia eskualdean ezgaitasun fiskiko, psikiko edota zentzumen mailako ezgaitasuna duen 6 eta 16 urte bitarteko edozein ikasle, mankomunitateko herrietan eskaintzen diren eskolaz kanpoko kirol-ekintzetara hurbiltzea da.

Angel Zeziaga eta Oskar Carrascal IVEFen lizentziatuek egindako ikerketen arabera, Deba Garaiko 90 ikasle elbarrituetatik, % 14k bakarrik hartzen du parte bailaran antolatzen diren eskolaz kanpoko kirol jardueretan. Ikerketa horren arabera, ikasle elbarrituen % 86ak ez du nahi edo ez dauka eskolaz kanpo-

ko jardueretan parte hartzerik.

Deba Garaiko Mankomunitatean martxan jarri den programa lurralde historikoko beste eskualdeetara ere zabaldu nahi du Diputazioak.

Ezgaitasuna dutenekin lan egiten dutenentzat kirol begirale ikastaroak antolatu dira urtean zehar eta kirolean parte hartzeko jardunaldiak (eskolarteko olinpiadak, denontzako kirol jaia...) ere egin dira. Aurrerantzean, berriz, kadete eta infantil mailako kirol taldeak eratu, edota psikomotrizitate taldeak antolatu nahi dira. Lehenengo egingo dena eskualde mailan igeriketa zerbitzua martxan jartzea izango da. Bertan, ezgaitasuna duten adin guztietako pertsonentzako ur programa desberdinak eskainiko dira.



Gaur egun, Deba Garaiko ikasle ezgaituen %14k bakarrik egiten du kirola eskolaz kanpo.

Elkarteen arteko karta txapelketa

Zapatuan, hilak 9, elkarten arteko karta txapelketako lehen kanporaketak jokatu dira Pertxa elkartean. Kanporaketak honako hauek izango dira: Artatse-Aitonak; Gorla-Lasai Toki; Pertxa-Santa Ana; Hermandad Pertxa-Madura eta Goxo Pe-San Miguelpa. Hortik 8 elkarte sailkatuko dira eta final laurdenak azaroaren 16an eta 23an jokatu dira. Lau elkarterik onenek finalerdiak eta finala jokatu dute Santa Ana elkartean hilaren 30ean.

Udazken Kulturalako emanaldiak

Udazken Kulturalako hurrengo emanaldiak datorren astebukaeran izango dira. Mondragon Brass taldearen musika kontzertua izango da barikuan, hilak 15, 22:30etan Novedades aretoa eta zapatuan, hilak 16, Roberto Bonettoren organo emanaldia izango da arratsaldeko 8etan San Pedro parrokian.

Xabier Arzalluz gaur Batzokian hizlari

Xabier Arzalluz Eusko Alderdi Jeltzaleko EBBko presidentea egungo egoera politikari buruzko hitzaldia emango du gaur, hilak 8, arratsaldeko 7 terdietatik aurrera Bergarako Batzokian.

Korreotako langileen protestaldia

Bergarako Korreotako langileek protestaldiak burutu dituzte egunotan euren lan baldintzen hobekuntza aldarrikatzeko. "Por un buen correo publico" zioen pankarta ikus zitekeen sarreran.

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

AKORT
Publizitatea

San Lorenzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Osasuna

Korrika probak

- Domekan Behobia-Donostia jokutzen da. Horrelako proba baten aurrean masajeak har-tu behar al dira?

- Beti izango da mese-degarria. Aurretik proba gertatu bitartean hartutako masaiak, proba aurreko azken astean hartutakoak eta probaren ondorengoak desberdinu behar dira.

- Zertan desberdintzen dira?

- Proba gertatzerakoan bakoitzak bere entrenamendu metodoa dauka baina masajearen funtsezko helburua lesioak prebenitzea izango da. Entrenamenduekin hastera-koan masajeak zertxobait gehiago lantzea oso garrantzitsua da, astean behin edo masaje bat hartuz. Komenigarria izango litzateke masaia hori entrenamendu intentsiboenaren ondoren hartzea. Kirolaria eta masajearen artean masajearen frekuentzia zehaztuko da.

- Zer lortuko dugu masajearekin?

- Masajeak odolaren zirkulazioa erretzen du, sistema nerbioa ere er-

lajatzen du eta, era berean, aktibitate muskularraren ondorioz sortutako toxinak eliminatzen ditu. Bestalde, masajea beste teknika batzuekin konbinatzen da: estiramenduak (oso garrantzitsuak), ur beroko bainuak eta sauna edo hidroterapia.

- Proba aurreko astean hartutako masajeak nolakoak dira?

“Proba bat gertatzerakoan, masajearen funtsezko helburua lesioak prebenitzea izango da”



Tendinitisa eta sobrekargak dira ohizko arazoak. ARTXIBOA



LUIS JABIER MARTINEZ
(Masajista)

- Proba aurreko 3-4 egunetan hartzen den masajearekin ahulago dauden puntuak lantzen dira. Masajistak kirolaria aztertu eta gehien zigortutako puntuak landu behar ditu. Azken astean entrenamenduen iraupe-

na eta intentsitatea gutxituz doa eta proba bezperan edo atsedena hartzea ondo dator. Bestalde, proba egunean, 7-8 minutuko masajea hartzen dute batzuk. Honen helburua sistema nerbioaren estimulazioa, zirkulazioa aktibatzea eta azken batean kirolaria adi jartzea izango litzateke, txisparekin irretzeko. Aurreko masajeetan giroa lasaia bada, honetan berriz guztiz kontrakoa izaten da. Dena den, masaje honek ezin du sekula beharrezko beroketa ordezkatu.

- Azkenik, probaren ondorengo masajea...

- Horrela da. Probarekin sortutako azido eta toxinak eliminatzea nahi da eta horretarako odol zirkulazioa eta zirkulazio linfatikoa estimulatu behar dira. Proba amaitu ondoren, pultsoa, arnasa eta tentsioa berreskuratu nahi dira; ondoren estiramenduak egitea ere gomendatzen da, bainua edo dutxa hartu eta jarraian masajea hartzea. Kirolaria hobeto errekuperatuko da horrela.

- Nolako arazoak izaten dira?

- Ohizko arazoak tendinitisa eta sobrekargak izaten dira. Horretarako masajea eta atsedena gomendatzen dira nahiz eta beste teknika batzuk ere erabili.

egizabal

BERGARA
☎ 76 12 28

oinetakoak eta poltsak

ARRASATE
☎ 79 66 01

Karmelo Azkoitia

Industrialdeako gerentea

Karmelo Azkoitia atxalbatarra Bergarako Industrialdeako gerente izendatu zuten joan zen otsailean. Azkoitia baikor azaltzen da Industrialdeako etorkizunaren aurrean. Urtarrilean urbanizazio lanak hasiko dira eta bere hitzetan, "Industrialdearen kokapen ezinhobeak Bergararen garapena ekarriko du".

- Zein fasetan aurkitzen da Industrialdea?

- Hilabete hauetan Industrialdearen urbanizazioarako beharrezkoak diren tramite lanetan izan gara batik bat. Poliki poliki gauzak konpontzen ari dira eta gure asmoa urtarrilean eskabadorekin lanean hastea da. Urtarrileko lehen edo bigarren astean lehen lanak hasiko dira eta 1997 amaieran lehen pabiloiak martxan izango dira. Bestalde, jakingo duzueenez, SPRI-LUR erakundeak (% 51), Bergarako Udalak (% 24,5) eta Diputazioak (% 24,5) osatzen dute Industrialdea eta kapital soziala, Gabonen ondoren, 210 milioira haundituko da.

- Ze eskaera jaso di-

ra orain arte?

- Hamabi bat eskaera jaso ditugu honezkeroko. 4.000 m² inguru betetzeko. Eskaera gehienak bergararrak dira kanpotarren batzuk ere badira. Era guztietako enpresak daude: biltegiak, auxiliarrak, ingeniariak ere bai, mekazinatuak, automatismoak... denetik. Guztira, 14.000 m² daude eta Kutzak beste 20.000 m² egiteko aukera dauka. Egiten ez badute guk erositako ditugu poliki poliki. Urtero 4.000 m² saltzeko asmoa daukagu eta gauzak ondo doaz orain arte.

- Prezioei buruz zerbait esan daiteke?

- Mirariak ezin daitezke egin. Terrenoak bere kostoa dauka eta gure inguruan nahiko garestia da. Bestalde, urbanizazioa kalitate onekoa egin nahi da etorkizunari begira eta gasa, telefonia eta bar sartzea garestia da. Pabiloiaren kalitateak ere zeresana izango du baina batzuetan beste 55-60.000 pezeta salduko da m²a. Finantziarioa 9 urtera, *leasing* erara egingo dugu. Erostea aukerarekin egiten da alokairua eta 108 hilabetetan ordaindu on-



Oñatiko eta Aretxabaletako industrialeetako gerentea ere bada.

doren lokala norberarena izango da.

- Oñati eta Aretxabaletako esperientziak ezagutzen dituzu. Zein egoeratan ikusten duzu Bergara?

- Oso ondo. Bergarako poligonoak abantaila izugarria dauka epe erdira edo epe luzera. Eibar-Gasteiz autopista eta Durango-Beasain korredorea egiten direnean ezinhobeto kokatuta egongo da. Gure bailaran Bergara garatzea falta da. Arrasatek lidergo teknologikoa hartzeko kapacitatea dauka, kondizioak daudelako baina lur gutxi dago bertan. Bergarak, ostera, lurra eta inguru egokiak ditu eta nire ustez 10 urte barru gure bailarak bere benetako neurria lortuko du.

- Fagorrek Vaillant eta ITTrekin San Juanen lantegiak jarriko ditu martxan...

- Bergararentzako primeran dator hori. Baldintzarik onenak eman dira lantegi horiek bertan kokatzeko eta Bergarako ekonomiarentzat oso notizia ona da hori. Azpiegitura eginda dagoelako etortzen dira eta hori loteria modukoa da; jokatzen baduzu irabazteko aukera izango duzu, bestela ez. Gure helburua enpresa berriak sortzea litzateke eta enpresa berriak ez dira 400 lanposturekin sortzen, miraririk ez dago. Beharbada lehen fase batean zaila da enpresa berriak erakartzea baina dinamika bat sortu ondoren posible da. Aretxabaletan, 76 enpresetatik, 30 berriak dira. Industrialdea martxan jarri eta gero, enpresa berriak erakartzen dituen iman moduko bat da. Baikor naiz industrialdearekin.

"Industrialdearako 12 bat eskaera jaso ditugu dagoeneko. Gehienak Bergarako enpresak dira, baina kanpokoak ere badira"

Diabetesa

Gero eta gehiago garatzen ari den gaixotasuna

Diabetesa gaixotasun ezaguna den arren, benetan ba al dakigu zerk sortzen duen, nola tratatu behar den eta nola-ko ondorioak dituen?

Diabetesa diagnostikatzen den momentutik, tratamendu bereziak jarraitu behar izaten dira. Heziketa, kirola eta dieta beharrezkoak dira diabetikoenentzat eta diabetes motaren arabera intsulina edo pilulak hartu behar izaten dira. Edozein momentutan sor daitezkeen gaixotasuna da, adinak ez du horretan garrantzaririk. Esate baterako, bergararren %4k diabetesa dauka.

“Gozoki batek baino azukre gehiago”

Xabierrek, 35 urte ditu eta 18 urterekin diabetesa diagnostikatu zioten. “Kanpoan ikasten nengola 11-12 kg gutxiagorekin bueltatu nintzen etxera. Asko jan arren, kaloriak erre beharrean, koipea erretzen nuen eta ondorioz argaldu egin nintzen”. Xabierren esanetan sintoma nabarmena egarria da. “5 minutuero komunera joaten nintzen eta ondorioz asko edan behar izaten nuen. Edateari utzi nion baina ahoa oso siku izaten nuen ez edan egin behar...” Analiak egin eta sintoma guztien jatorria diabetesa zela konturatu

zen. “Gozoki batek baino azukre gehiago nuen”.

Intsulina mota ezberdinak

Xabierrek intsulina injektatzen du. Bizimodu motaren arabera intsulina mota ezberdinak hartzea komeni da. Esfortzu handia egin behar baduzu, kirolen bat egitean adibidez, intsulina mota ezberdina erabiltzea garrantzitsua da. “Nik bi mota erabiltzen ditut. Goizean, eguerdian baino gutxiago jaten dudanez, mota bat eta eguerdian, berri, beste bat”.

Sendagileek, azukrearen kontrola areagotzeko

intsulina gero eta gehiago injektatzea gomendatzen dute. “Egunean biru al-diz injektatzen naiz. Asumituta daukat eta ez zait ezer kostatzen. Boli-grafo itxura duen tresna erabiltzen da horretarako. Oso erosoa da eta edonon injektatu dezakezu”.

Diabetikoa izateko arriskua

Bergaran, %4ak badauki diabetesa duela baina beste kopuru handi batek, gaixotasuna garatua izan ez arren, diabetesa izateko arriskua dauka. Zoritzarrez, pertsona gutxi du arrisku horren berri. “Hiesarekin gertatzen

dena adibide gisa erabili daiteke. Antigorputzak izan ditzakezu baina ez duzu zertan biesa izan. Diabetesaren kasuan eretendentzia izan arren, garatzen ez bada, ez dago arduratu beharrik”.

Bizimodua aldatu

Ordutegi bat zehaztu behar da intsulina injektatzeko. Denborarekin ikasten den zerbait da eta ohitura bihurtzean ez du esfortzurik suposatzen. “Diabetesa izatean, bizimodua aldatu behar da, baina horrek ez du esan nahi beste edonork egin ditzakeen gauzak ezin daitezkeen egin. Ni,



Azukrea duten janariak ez jatea komeni zaie diabetikoei.

mendira joaten naiz eta normalean denetarik jaten dut. Ez dut atsegin, diabetikoentzat bereziki eginda dauden produktuak kontsumitzea. Kontrol egokia eramaten dudanez ez dut horren beharrik”.

Analisiak eta azukrearen kontrola makina baten bidez egin daitezke. Makina erabiltzea erreza da eta norberak etxean izaten du. *“Segundu gutxitan egiten da analisisa. Kontrola eramaten laguntzen du. Sendagileak ere analisisen erantzunak izaten ditu diabetesaren gorabeherak jarraitzeko”.*



Marta Moral: *“Diabetikook, inork baino gehiagok, bizitza osasuntsua eramanez behar dugu”.*

Poltsikoan beti azukre tontorra

Hipogluzemia era ezberdinetan ager daiteke. Batzuetan konortea galtzen da, bestetan berriz, sintoma ezberdinak azaltzen dira eta azukrea hartuz edo zerbait janz kontrolatu daiteke. *“Izerdia, sabelean taupadak eta zorabioa izatean konturatzen naiz hipogluzemia dela. Zerbait jan edo azukrea hartu eta berehala desagertzen da. Badaezpada, poltsikoan beti azukrea eramaten dut”.*

Gaixotasuna desmitifikatu

Askok ez du diabetesari buruz informazio egokirik. *“Gaixotasunari, duen baino garrantzi gehiago ematen zaio. Desmitifikatu behar dela eta jendea motibatu beharra dagoela uste dut. Gaixoa eta gaixotia izatea gauza ezberdinak dira. Argi dago gaixoak gabela eta asko zaindu beharra daukagula baina horrek*

ez du esan nahi ezin dugula bizitza arrunta egin eta ezin gabela pertsona normalak izan”.

21 urtean diabetiko

Basi Kortak 53 urte ditut eta 32 urterekin jakin zuen diabetesa zuela. *“Zauri bat egin nuen bankan eta ez zela sendatzen ikustean, sendagilearengana joan eta analisisiak egiteko agindu zidan. Emaitzak ikusi ondoren, diabetesa nuela konturatu nintzen”.* Diabetesari buruz asko jakin ez arren, ez zitzaion asumitzea kostatu. *“Erregimen bat ipintzen dizute, bizitza osoan iraun behar duen erregimena”.*

Intsulina edo pilulak

Diabetesa duten pertsona askok insulina hartu behar izaten dute. Basi, oster, pilulen tratamendua jarraitzen ari da. *“Medikuaren ustetan insulina hartu beharra dut baina oso gogorra da”.*

Kontrola beharrezkoa

Diabetesak eguneroko bizitzan aldaketa ugari sor ditzake. Epe mugatu baten barruan sendagilearengana joan behar da, botika ugari hartu behar dira eta janaria kontrolatzen ikasi behar da. Basi adierazi digunez, arlo batzuetan aldaketa handia nabaritu du. *“Nik diabetesa izan aurretik 96 kg pisatzen nuen eta orain 60 kg pisatzen dut”.*

Diabetesak gose handia pizten du eta gizendu beharrea argaldu egiten da. *“Hasieran gose handia izaten nuen. Egun osoa janariarekin pentsatzen nengoen, baina tratamendua hasi eta kontrolatu beharra zegoen, honela argaldu nintzen 36 kg”.*

Elkarte baten faltan

Bergaran, %4 diabetikoak izan arren, ez da oraindik elkarerik sortu. *“Diabetesa nuela jakin nuenean, harritu egin*

nintzen, txoke handia izan zen. Elkarte bat egon balitz, errezagoa izango litzateke. Diabetesa oraindik zabaltzen ari den gaixotasuna da eta bapatean edonork gaixotasunarekin topo egin dezake. Elkarte baten pertsona horri asko lagundu diezaike. Informazioa, laguntza, sortzen diren kezkek argitzea oso garrantzitsua da”.

Zaurien arriskua

Basi, diabetesa diagnostikatu aurretik oso nekatuta sentitzen zen. *“Nere lagunek etxera joan eta etxekolanak egiteko asmoa zutela esaten zutenean, ni dagoeneko oso nekatuta sentitzen nintzen. Etxera joan, zerbait jan eta ohera joaten nintzen. Hanketan kalantzen eta begietan zauriak izan nituen. Nik lo egiteko arazoak ditudanez pilulak hartzen ditut. Egutero guztira sei pilula hartu behar ditut, bost diabetesarentzat eta bat lo egiteko”.*

Garbitasuna oso garrantzitsua da Basirentzat. "Diabetesa duenak, garbitasuna asko zaindu behar du. Hanketan egiten diren zauriak eta beste-lakoak kontu handiz zaindu behar dira, normalean baino denbora luzeagoa behar izaten baitute sendatzeko. Edozein pertsonarentzat erredura bat egiteak ez du garrantzia handirik baina nire kasuan bai".

Gaixotasuna onartuta

Marta Moralek, 28 urte ditu eta orain dela 5

urtetik diabetikoa da. "Oso argal geratu nintzen, 37 kg nituela konturatu nintzenean izugarri kezkatu nintzen. Egoera hura ez zela normala pentsatu nuen, sekula baino gehiago jan eta sekula baino gutxiago pisatzen nuen".

Martak ez du arazorik izan gaixotasuna asumitzeko. "Ez dut beste erremediorik izan gaixotasuna asumitzea baino".

Ordutegia zaindu

Diabetikoez bizitza arruntean aldaketak na-

baritzen dituzte eta ordutegi finko bat izatera behartuta daude. "Nire bizitza zertxobait aldatu da baina ez gehiegi. Kontrola eraman beharra dago. Ezin dut denetarik jan eta beti sendagileen artean nabil. Bestalde, ordutegi finko bat beharrezkoa da jan, lo eta aktibitate ezberdinak egiteko, insulina hartu behar baitut eta ezin da edozein momentutan insulina injektatu. Azken finean bizitza osasuntsua eraman behar da".

Azukrea beharrezkoa

Azukre maila edozein arrazoiengatik jeitsi daiteke. Kirol gehiegi egiteagatik, gutxi jateagatik edo urduri egoteagatik. "Beharrezkoa den azukre maila mantentzea oso zaila da. Nik, urduri nagoenean, azukrea hartzen dut eta kitto, ez dut arazorik izaten. Baina ez da beti kontrolatu daitekeen zerbait, batzuetan ez dut nabaritzen azukre faltan nagoela eta ingurukoek lagundu behar izaten di-

date". Martaren kasuan ere inguruko gehienek dute bere gaixotasunaren berri. "Inguruko guztiek dakite diabetikoa naizela, hori espero dut behintzat, lagungarria eta komenigarria dela uste baitut".

Gorputza zaindu

"Norbera oso ondo zaindu behar da. Dieta bat eraman eta kirola ere egiten dut. Arazorik ez izaten saiatzen naiz, ez da beti errez egin daitekeen zerbait baina kontrola izanez gero egin daiteke". Martak ez du diabetikoen elkartera joateko ohiturarik. "Nik Donostian lan egiten dut eta badakit elkarte bat dagoela. Ez naiz beraiekin harremanetan ipini, profesionalekin hitz egitea nabiago dudalako; Donostian Osakidetza lan ona egiten ari da honen inguruan".

Gaixotasun ezaguna dela uste du Martak. "Diabetesa gero eta jende gehiagok ezagutzen du, zoritxarrez, gero eta diabetiko gehiago daudelako". ■



"Diabetesa izan aurretik 96 kilo pisatzen nituen; orain, 60".

BERRIGARA aldizkariak ondorengo bi lanpostuak betetzeko langileak behar ditu:

MAKETATZAILEA

- Zer eskatzen da?
 - Erdi mailako ikasketak.
 - Autoedizio programetan esperientzia izatea: Quark X Press, FotoShop, Freehand.
 - Euskaraz, ahoz zein idatziz ondo moldatzea.
- Zer eskaintzen da?
 - Urtebeteko kontratu laborala, lan-jardun osoz, luzatzeko aukerarekin.

KAZETARIA

- Zer eskatzen da?
 - Lizentziatu mailako ikasketak.
 - Euskaraz, ahoz zein idatziz ondo moldatzea.
- Zer eskaintzen da?
 - Urtebeteko kontratu laborala, lan-jardun osoz, luzatzeko aukerarekin.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, Berrigara aldizkarira (Errotalde Jauregia) jo daiteke edo 76 03 97 telefonora deitu. Curriculum Vitae eta eskabideak aurkezteko helbidea eta epea: Berrigara astekaria (Errotalde Jauregia) 20570 BERGARA, abenduaren 5a baino lehen.

Bittor Irigoien. Medikua

“Ezinbestekoa da azukre gutxi hartzea eta pastelak eta gozokiak alde batera lagatzea”

- Zer da diabetesa?

- Diabetesa odolean azukre gehiegi edukitzea da. Azukre gehiegi izateak, ondorio ezberdinak sor ditzake, bihotzean, gultzurrunetan, zirkulazioan... konplikazioak sor daitezke. Berez, odolean azukrea edukitzea ez da zertan txarra izan behar, arazoa gehiegi edukitzea da.

- Zeintzuk dira hasierako sintomak?

- Egarria, pix asko egitea, gose handia izatea, asko jatea eta hala ere asko argaltzea.

- Diabetes mota ezberdinak al daude?

Bai. Bi mota nagusi daude. Tipo 1 eta tipo 2a. Lehenengoa gazte denboran azaltzen da normalean. Intulina beharrezkoa izaten da, egunean bi edo hiru aldiz injektatu beharra dago, odolean intulina nahikoa produzitzen ez delako. Bigarrena, berriz, 40 urtetik gora izatean sortzen da. Kasu honetan nahikoa intulina dago odolean baina ez du bere funtzioa ondo betetzen. Normalean pertsona gizen eta hedadetuengan sortzen da. Gero eta pertsona edadetu diabetiko gehiago dago. Pertsona gizenak ere gehiago dira, ondorioz diabetes tipo hau ere gehitzen ari da.

- Zein proportzio dago diabetes tipo 1 eta 2aren artean?


- %90 tipo 2a da eta %10a tipo 1a.

- Zeintzuk dira diabetesa kontrolatzeko

elementu garrantzitsuenak?

- Dieta, kirola eta heziketa. Heziketak, norberak zer nolako gaitza duen jakitea suposatzen du. Oso garrantzitsua da beharrezko informazioa izatea, nolakoa den, ze ondorio izan ditzakeen, nola kontrolatu behar den, zelako bizimodua eraman behar den jakitea. Informazioa daukanak konpromezu handiagoa izaten du bere gaitzarekin eta ondorioz gaixotasuna hobeto eramaten du. Kirola egitea oso garrantzitsua da. Lehenik eta behin ahalegindu behar gara azukre gutxi hartzen; alde batera utzi behar dira pastelak, edari azukredunak, gozokiak... Bestalde, azukrea erre egin behar da kirola eginenez. Dietak eta kirolak garrantzi handia dute. Lotitasuna, diabetes tipo 2a sortzeko faktore bat bada, kirola egin eta dieta bat jarraituz gero, argaldu egiten da eta argaltzean intulinarekiko erresistentzia gutxitu egingo da. Frogatuta dago, diabetes tipo 2a dutenen %95ak pisu ideala izango balu, ez lukeela diabetesik edukiko, diabetesa izateko tendentzia desagertu ez arren.

- Tabakoak eta alkoholak eraginik badute diabetesean?



- Tabakoak diabetesean eragin zuzena izanez arren, arrisku faktore garrantzitsua da, arteriosklerosia sortzen baitu. Alkohola, berriz, zertxobait edan daiteke, baina kontrolatuta eta neurrian.

- Zer gerta daiteke azukre maila gehiegi jeisten denean?

- Hipogluzemia. Ondorioak, izerdia, gosea, dardarak eta zorabioak izaten dira. Konortea galtzera ere heldu daiteke, horregatik oso garrantzitsua da pilulak edo intulina hartzen duenarentzat poltsikoan azukre kosko-

rrak eramatea. Jendeak ez du ohiturarik azukrea eramateko eta oso garrantzitsua da.

- Zeintzuk dira ondorioak?

- Ondorio nagusienak, bihotzean, gultzurrunetan, ikusmenean eta hantketako zirkulazioan sortzen dira. Hau guztia ondo kontrolatzen ez bada, kangrena sor daiteke eta ondorioz anputazioa. Hala ere, ez dago kezkatu beharrik, dieta, kirola, heziketa, intulina edo antibiotikoen tratamendua behar den moduan eramanez gero.

“Informazioa daukanak konpromezu haundiagoa izaten du bere gaitzarekiko eta, ondorioz, gaixotasuna hobeto jasaten du”

Euskaraz berba egiterakoan, hikan hitzegiteko ohiturarik badaukazu?




Jose Mari Perez

Bai, egiten dugu bai; familian ahal dugunean, kuadrilan ere bai... Batez ere Euzki nere lagunarekin egiten dut hikan. Nahiago dut hikan zukan baino.



Lorena Terrazas

Ez, ez dakit hikan berba egiten. Gustatzen zait baina nik ez daukat ohiturarik. Beharbada ez da oso zaila izango baina...



Iban Idigoras

Ez, ez dakit, ohitura faltagatik edo. Gustatzen zait besteei hikan entzutea baina zaila izango da. Familian inork ez du hikan berba egiten.



Jesus Mari Barrutia

Ez, kuadrilan eta ez dugu hikan berba egiten. Sekula ez dut egin, normalean zuka egiten dut. Ikasi? Beharrik ez, zuka eginda nahikoa da. Entzutea beti da aberasgarria.



Angelita Arizmendi

Ohitura badaukagu. Danekin ez, horretan ere kuida dua eduki behar da. Nire edade inguruko gehienek behintzat badakite hikan egiten.



Maria Jesus Gantxegi

Ez daukat ohiturarik, sekula ez dut egin eta ez dakit. Besteei entzutea asko gustatzen zait. Ikastea? Gustatuko litzaidake bai, zergatik ez.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 11 71 ARRASATE

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA



M. P. kasua


Ez zen asko falta goizeko hamaiketarako Martin Prietoren "bahiketa"ren berri izan genuenean. eta ez zitzaigun denbora asko kostatu konprobatzea Luis del Olmo titular handietan behin eta berriz "aurreratzen" ari zena egia ez zela. Berdin zait Martin Prietok non pasa zuen urriaren 30eko arratsaldea edo gaua, bost axola emakume batekin igaro bazuen ere, eta noski berdin zait, horrela baldin bada, emakumearen azalaren kolorea edota bere ilearena.

Hori guztia Martin Prietok jakingo du eta berari dagokio, nahi badu behintzat, azalpenak ematea. Nori?, ba bere emazteari edo berak nahi duenari. Momentuz, behintzat, epaileari ez dizkio eman, eta hori, bere emaztearekin batera, deituta egon arren.

Baina Martin Prietoren "bahiketa"ren inguruan izan ziren gertakizun batzuegatik azalpenak merezi ditugula uste dut, eta momentuz behintzat inori ez diot entzun egun hartan hankasartze ugari egon zirenik. Ez da erreza ulertzea nola minutu gutxitan Martin Prietoren etxean bildu ziren Auzitegi Nazionalako 3 epaile, Jaime Mayor Oreja Barne ministroa bera, Indar Segurtasuneko idazkari nagusia, eta abar, horrek daukan zeresanarekin.

Badirudi ez dagoena ikusi nahi dugula, eta hori gauden egoeran arrisksua da. Kasu batzuetan hain azkar mugiterik baldin badago, bakarrik gogorarazi, Jose Antonio Ortega Lara espetxeetako funtzionarioak hilaren 17an 10 hilabete beteko dituela bahituta. Agian, hain azkar mugitu zirenek egiazko bahiketa hau kontutan izan behar zuten zeuden tokietatik Martin Prietoren etxeruntz abiatu aurretik.

Ane Miren LIZARRALDE



Urtebete pasatu da

1995eko azaroan itxi zuten UNEDeko Euskara Departamentua. informazio faltan dagoenak agian pentsatuko du erabakia Madrilgo Ministerio ezkuturen batean hartu zela, baina oker dabil. Erabaki hartzaileak gure Diputatu jauna, gure Kultura Diputatu anderea, gure Alkate jauna eta gure Kutxa ("Kultura banatzen dugu") izan ziren.

Martxan egon zen 20 urtean 10.000 ikasletik gora pasatu ziren bertatik. Euskarazko tituluak, ikastaro bereziak, hitzaldiak, ikerketa proiektuak, liburuak... Zer ez da egin euskara eta euskal kultura landu nahi zuten guztien elkargune zen ikastetxe hartan. Eta gainera, mila eratako kontsultak erantzuten ziren, sekula ezer kobratu gabe, jakina: urteurren edo gabonetako zorion-agurrak, haurren edo dendaren izena, apeliduen esanahia, merkataritza edo udalarentzako esloganak, itzulpenak, bibliografia... Ixteko eman zituzten arrazoiak. Bat: gaur egun ez dagoela honelako zentru baten beharrik; beste erakunde batzuek betetzen dituztela alor honetako eskakizunak. Oso ezjakina izan behar da hau esatera ausartzeko, edo bestela oso zinikoa. Uste dut kasu honetan dohai biak elkartzen zirela erabaki hartzaileen gan.

Bigarren arrazoiak: garestia zela. Euskara Departamentuaren kostu erreala 10 edo 15 milioiokoa zen urtean. Kontu izanda 300 ikasletik gora, lau irakasle finko eta hainbat aldizkako mobiltzen zituela, ea zein ikastetxe den merkeagoa. Kontua da itxi zela, berririk ez dela zabalduko, eta hutsune handia geratu dela herrian eta inguruan. Eta ez dakigula zein izan zen Departamentua ixteko benetako arrazoiak.

Juan Martin ELEXPURU

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

■ **Chulillatik Bergarara**

Bergarako Udalak **Chulillako La Lira** Musika Elkarteko Musika Bandari harrera eskeini zion joan zen barikuan. Guztira, 70 lagun inguru etorri ziren Valentziatik, tartean **Jose Luis Yuste** Chulillako alkatea. Ohorezko aurrekuaren ondoren, Chulilla eta Bergarako alkateek hainbat opari elkartrukatu zituzten eta biak ere oso pozik azaldu ziren azken urtetan bi herrien artean piztutako erlazioagatik. Pleno aretoa jendez gainezka zegoelarik, Musika Eskolako Orkestak Chulilla zein



Bergarako himnoak eskeini zituen **Alfredo Glez. Chirlaqueren** zuzendaritzapean. Valentziarrek ekitaldi ezberdinetan hartu zuten parte astebukaeran eta zapatuan kontzertua eman zuten Novedades aretoan. **Luis Gutierrezek** eta Chulillan bizi diren bere anai-arrebek posible egin dute Chulillako Banda bigarren aldiz herrira etortzea. Musika Eskola zein Chulillako ordezkariak oso positibotzat jö dute elkartruketa.



Tarazonan, eta han egindako lanen selekzio bat ekarri dute herrira **Benito Canteroren** bitartez. Erakusketan Benitoren eta Estatu osoko beste 12 argazkilariren 40 bat argazki (zuribeltzean gehienak) ikus daitezke.

■ **Gorputz biluziak**

Domekara arte izango da ikusgai Kultur Etxean *Biluziaren hizkuntza* argazki erakusketa. Joan zen barikuko inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Chulilla zein Bergarako alkateak eta erakusketan parte hartzen duten argazkilariek bildu ziren Kultur Etxean. Argazkilariek *Biluziaren hizkuntza* izenburuko ikastaroa egin zuten orain bi urteko udan,

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.
 Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.
 Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
 ☎ 76 60 39 ☎ 76 19 98

Kabia TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.
 Karta (2.000-3.500 pza. artean).
 Okela eta arraina parrilan (enkarguz).
 Pintxoak, kazolatxoak eta bokadilloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak
 ✓ Eder gela
 ✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

■ **Kilometroak 96 Bergaran**

Pertxa elkarteko lagunek 1991n Bergaran ospatutako Kilometroakeko zirkuitua egiteko ohitura daukate azaroaren 1ean. Barikuan 62 lagun bildu ziren Seminarioan eta hamarretakoa San



Martzialen egin ondoren, eguraldiak lagunduta, zirkuitu osoa betetzea lortu zuten.

Ondoren indarrak errekuiperatzeko bazkaria egin zuten Pertxa elkartean. Esan bezala, Kilometroakeko egunean, lana egitea tokatu zitzaizen Pertxakoei eta ordutik urtero egin izan dute irteera azaroaren 1ean. Hurrengo urtera arte!!

Zertan dihardute ba?



Idolia Moreno 25 urteko aerobic monitore bergararrak bihar zapatua Azpeitiako Kiroldegian Aspaceren alde egingo den Aerobiton proba zuzenduko du, Karmele Bastida, Gurutze Larrañaga eta Arantzazu Zubia bere lagunekin batera. Joan zen uztaillean Bergaran horrelako proba bat izan zen eta biharkoan jasotako dirua Aspacerentzat izango da. Antolatzaileek 200 bat partaide biltzea espero dute. Partaideak, 5etatik aurrera, bi ordu terdiz aerobica egiten arituko dira monitorean esanetara. Sarrerak, 500 pezetan jarriko dira salgai Kiroldegian.

■ **Zaharrak berri**

Egunotan **Zaharren Astea** ospatzen ari dira **Mizpirualde Egoitzan**. Astean zehar hainbat ekitaldi antolatu dira, tartean txokolatada, dantzaldiak, musika emanaldiak, karta txapelketak edo



antzerkia. Argazkian Oihulari Klown taldeak martitzenean eskeini zuen "La memoria del fuego" laneko irudia ikus dezakezue. Oihularikoe erabat txundituta utzi zituzten Mizpirualdeko lagunak euren kontakizunekin. Astebukaeran, berriz, Zaharren Asteak aurrera egingo du: zapatuan 5etan Centro Cultural Extremeñoren emanaldia izango da eta domekan, meza izango da 11:45etan, ordubatean bazkaria eta ondoren opari banaketa eta Xamatx dantza taldearen emanaldia.

Airtel
HAIZETEL
 Telefonía mobila
 Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68

ZUBIETA
 elektragintza
 MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
 Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atekak, manparak...
 Eskia ezazu aurrekontua
 konpromezu barik
 Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Bittor Poza

Bittor Poza tabernari lanetan izan da betidanik. Plazako Bar Americanon hasi zen lanean, 1975ean, eta ordutik hainbat tabernatan izan zen 1987an Nahikari taberna zabaldu zuen arte. Bertan 90 margo eta argazki erakusketa inguru antolatu ditu.

- Zergatik tabernari?

- Asteburuetarako dirua ateratzeko hasi nintzen eta gaur arte.

- Lana arratsalde ala gauetz?

- Biak, nahiz eta arratsaldekoa giro lasaia goa izan.

- Astebukaera ala astebarrua?

- Astebukaera, jendea alaigo egoten da.

- Nola igarotzen dituzu ordu hilak?

- Irakurriaz edo tertulian.

- Tabernako lanik txarrena?

- Hurrengo egunerako dena gertu lagatzea.

- Eta gustokoena?

- Kontsumisioak ateratzea.

- Juergazalea zara?


- Zedozer.

- Gustoko trago bat?

- Caci que kuba.

- Ezagutzen duzun tabernarik politena?

- Cafe Caruso, Gasteizen.



“Ordu hilak irakurriaz edo tertulian pasatzen ditut. Irratia entzutea gustatzen zait eta jaterako orduan txuleta eder bat eta Errioxako ardoa. Familia aurrera atera eta lanean gustora ibiltzearekin konformatzen naiz”

- Tabernan musika lasaia ala martxosoa?

- Ordua eta egunaren arabera.

- Musika talde bat?

- Asko dira. Bat esatearren Mike & The Mechanics.

- Nola sortu zen tabernan erakusketak egiteko ideia?

- Erdi brometan, Pello Alberdi eta Bingen De Pedrokekin berbetan. Orduan ez zegoen Kultur Etxerik...

- Egin dituzun erakusketetatik zeinekin geratuko zinateke?

- Angel Perales eta Juan Angel Balenziagarenak oso ondo egon ziren.

- Pintura ala argazkia?

- Pintura, barietade gehiago dago.

- Museoak atsegin zaizkizu?

- Bai joaten naiz.

- Ikusitako azkena?

- Bilboko Berta Belaza galeria.

- Irrati programa bat?

- Noche de sol, Efe irratikoa. Loiola irratian ematen dute.

- Zer falta zaio Bergarari?

- Jendea zabalagoa izatea.

- Janari eta edari bat?

- Txuletoia eta Errioxako ardoa.

- Kirolrik egiten duzu?

- Batere ez.

- Gaztetan ikasle ona zinen?

- Ez oso ona.

- Txikitan zerekin egiten zenuen amets?

- Haundi egitearekin.

- Eta orain?

- Familia aurrera atera eta lanean gustora ibiltzearekin.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono, 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

LIZAR

ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

JAUJA KIROLAK

Irizar, 2

☎ 76 14 95

BERGARA

Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 **BERGARA**

☎ 76 12 31

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

KIRIBILTZO

ILEAPAINDEGIA

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 25 21.

Pisua salgai Harrizurin.
Hiru logela, garajerako aukera. ☎ 76 55 28/55 31 56.

Pisua alokairuan Antzuolan. ☎ 76 21 06.

Garajea (2 plaza) salgai Aranerrekian. ☎ 76 06 96.

Kontsultarako lokala alokairuan. ☎ 76 07 84.

Garajea salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89 (gaeuz).

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 54 98.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

Donostian (Amaran) pisua osatzeko 2 neska behar dira. ☎ 76 17 20 / 27 18.

Garajea saldu edo alokairuan jarriko nuke Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

Gasteizetik, 4 Km.ra, Arcaya herrian, 15.460 m²-ko lursaila salgai.
☎ 76 63 27.

Pisua salgai Mugertzan. Amueblatua. ☎ 76 53 79.

Pisua alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 50 58.

Pisua salgai edo alokairuan Barrenkalen. ☎ 78 70 30.

Garajea (2 plaza) salgai Ibargarain. ☎ 76 28 33.

DENETARIK

Peugeot 505 kotxea (SS-S) salgai. ☎ 76 30 01.

Fagor termoa (30 litro) salgai. Berria. ☎ 76 52 31.

Neumatiko eta Ilantak salgai, 185/60 R 14 (Golf III). 25.000. ☎ 76 31 16.

Soka boskoteak ezkontza elizkizunetan jotzen du. ☎ 76 57 80 (arratsaldez).

Renault 12 kotxea (SS-M) egoera onean salgai. 60.000 pta. ☎ 76 37 84.

Seat Ronda kotxea (SS-U) salgai. Egoera onean, 100.000 pta. ☎ 79 15 96.

Gasteizera joan-etorria (8-17.00) egiteko kotxea behar dut. ☎ 76 15 76.

Ford Scorpio kotxea (SS-W) salgai. ☎ 76 28 07.

Montesa Cota 348 Trial motorra salgai. ☎ 76 61 05.

Citroen C.15 kotxea (VI-N) salgai. ☎ (945) 27 59 30.

2. eskuko motorra erosiko nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

Zaldia alokatzen dut. 10.000 hilean. ☎ 76 30 01.

Kotxe teledirijitua salgai. ☎ 76 04 63.

'Los picapiedra' bideoa salgai. ☎ 76 38 71.

LANA

Neska euskalduna behar da etxeko lanak/haurrak zaintzeko. ☎ 76 57 93.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Lanak ordenadorez pasatzen dira. ☎ 76 15 63.

Neska batek etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 30 52.

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

Haurrak edo helduak zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

Ingeles Filolojian lizentziatua, klaseak emango nituzke. ☎ 76 41 34.

Erizain batek arratsaldez lan egingo luke. ☎ 76 54 52 (Jone).

Majisteritzan diplomaturako neska batek haurrak zaindu edo klaseak emango lituzke. ☎ 76 48 53.

Unibertsitate mailako klaseak. Estatistika, BBB eta UBI. ☎ 76 35 37.

Lizentziatuak BBB eta UBI klaseak ematen ditu Bolun. ☎ 76 70 40.

Amama bat egunean 8 orduz zaintzeko pertsona heldu eta serioa behar da. ☎ 76 47 28 (gaeuz).

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

IKUSBI

**ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK**

Irala, 5 ☎ 76 53 09

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15


ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



"Bergaran zuzenean joteko lokalak falta direla uste dut, lokalik ez badago ez da jenderik irtetzen"

"Oñatiko Gaztelekuan grabatutako zinta Euskadi Gazteako maketa lehiaketara bidali dut"

AITZOL MUJIK, KANTARIA

"Kantaldia hasi aurretik urduri egoten naiz, baina erronka polita da"


Musika Eskolako Gazteen Bandan tronboia jotzen du, Orfeoi Gazteko kide da eta kantuko klaseak ematen ditu; Miserableak ikuskizunean parte hartu zuen eta San Martinetako estapan arituko da. Azkenaldian, ordea, kitarra eskuan, hainbat tokitan eman dituen kantaldien gatik ezaguna egin da Aitzol Mujika (17 urte).

- Nola hasi zinen Musika Eskolan?

- Musika txikitatik gustatu izan zait eta osaba bertan zebilenez animatu egin ninduen. Gustora hartu nuen eta gero eta gustorago nabil. Gurasoek behartuta sartu diren asko ezagutzen ditut eta obligatuta sartu zirenez, aspertuta, lagatzen joan dira.

- Musika Eskolatik aparte, hainbat kantaldian eman dituzu azkenaldian.

- Bai, orain dela urtebete pasa hasi nintzen. Ikastolan, institutuan, Oiarzungo kantu txapelketan, Oñatiko Gaztelekuan eta Kilometroetan, Elgoibarren jo dut. Oñatiko emanaldia grabatu nuen eta Euskadi Gazteako



Azkenaldian bakarka aritu bada ere, koroak asko gustatzen zaizkio.

maketa lehiaketara bidali dut.

- Ausarta izan behar da hain gazte izanda jendaurrera bakarka irtetzeko.

- Beno, bai. Kontzertu aurretik gaizki pasatzen dut, urduri egoten naiz, baina erronka polita da. Horrelakoak egiten ez badituzu bizitza aspergarriagoa da. Taldea osatzea burutik pasatu zait, aurrerago beharbada.

- Zenbat abesti dituzu?

- Hamar. Bi kantutako hitzak Irati Agirreazaldegiren elgoibartarrarenak di-

ra, eta gainontzekoak nireak. Abesti guztietako musika nik egin dut.

- Zer kontaktzen duzu abestietan?

- Gehienak amodiozkoak dira. Eguneroko arazoei buruzkoak ere baditut, kitarrari egindako bat... Baina asko kostatzen zait abestietako hitzak egitea.

- Eta musikari dago-kionez, zeren ikutua dute zure abestiek?

- Niri Javier Alvarez, Mikel Markez edota Silvio Rodriguez gustatzen zaizkit. Ildo horretatik doa nire musika. Etxean beste

gauza batzuk ere entzuten ditut, Kashbad eta Deabruak Teilatuetan esate baterako.

- Mikel Markez ala Bob Dylan?

- Mikel Markez.

- Eta Bittor Aiapela ala Mikel Laboa?

- Mikel Laboa ez zait gustatzen eta Bittor Aiaperen izateko modua ere ez asko.

- Ze egoeratan dago Bergaran musika?

- Zuzenean joteko lokalak falta direla uste dut. Lokalik ez badago ez da jenderik irtetzen. Bestalde, entsaiatzeko lokalak ere falta dira. Talde batzuk lokala badute, baina urtean behin edo birritan jotzen dute bakarrik. Ematen du neguan denborapasa egoten direla lokalean.

- Musika Eskolatik irten dira talde batzuk: Old Boys Quintet, Wonder Brass...

- Bai, irten bai, baina noraino heldu dira? Old Boysekoak, esate baterako, Donostiako Altxerrin joteko aukera izan zuten eta mailarik ez dutelako ez ziren joan. Ausartagoa izan behar da, horrelako aukerak aprobetxatu egin behar dira.


1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	15	5	21	5
2. ERROTAGAIN	12	5	18	8
3. JAUJA OH ZEREZOS	9	4	15	11
4. OGIZUN	9	4	15	11
5. BAR CANALEJAS	7	4	14	12
6. BILDURBAREK OPEL/LAM	7	5	22	22
7. MONGATXURRA	6	4	19	13
8. ARLOTEAK OILAGORRA	6	5	21	14
9. ORTZI	4	4	7	13
10. UFALA	4	5	12	19
11. AZPEITXI JATETXEA	3	4	12	16
12. MADURA INDUSTRIAS GOL	3	5	6	12
13. PAGOMENDI	0	5	4	27

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK BERGATRANS	12	5	20	10
2. ETXAGI	12	4	14	9
3. UVE BIKOITZA JAM	10	5	12	15
4. KAYAK OS JARDINEIROS	9	4	19	8
5. EZINLEIKE	7	5	12	12
6. LA JUVE	7	4	7	5
7. SOROPOTROAK	6	4	14	12
8. INDARGORRI	4	3	3	3
9. AGINASPI	4	4	9	12
10. AGIRREBEÑA JATETXEA	3	4	10	12
11. ERI	3	4	8	12
12. HALTZARI	1	4	9	15
13. AUTOBEREZI	0	4	4	17

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. PJS	11	5	16	9
2. FAC	10	5	17	10
3. JAKINA PATXARAN TEAM	10	5	14	18
4. GUADALEST	9	5	18	12
5. MOSKIS	9	4	17	8
6. NEKROFIKOS	9	5	17	14
7. EH BITERRAK	7	4	9	9
8. TXIPIRON	7	4	10	11
9. NAHIKARI HOOLIGANS	7	4	11	8
10. IGANDEKOAK	6	4	12	17
11. MRW	1	4	8	14
12. ARI ARI	0	4	3	15
13. CONSTRUCCIONES BERGARA	0	5	10	23

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MANITOU	15	5	27	8
2. OSINTXU	13	5	22	10
3. ARBE KIROLAK	12	5	20	16
4. PANORAMIX	9	5	18	21
5. KOMANDO PIPERRAK	9	5	14	14
6. ETENGABE	10	5	18	11
7. SLO	6	5	13	23
8. MATXAKATEGI	6	5	9	9
9. POLIDEPORTIVO TABERNA	4	5	9	16
10. AMILOTX	4	5	8	13
11. PITTIXAK	3	5	15	18
12. PATA NEGRA	3	4	9	18
13. XURRUPAK	3	4	7	19
14. ALDOKA MALDOKA	2	5	13	20

Jokoz kanpo



Aitor Curado
MRW

ZER MODUZ DOA TXAPELKETA?

Berriak gara eta esperientzia falta igartzen dugu. Bi partidua galdu eta bat berdindu egin dugu.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena defentsa eta txarrena konpenetratio falta.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Goizez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Errotagain.

AURRELARI ONENA?

Aitor Anton.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

Beste talde batekin, 8 eta 1 egin nuen Usoaren kontra.

ETA JASOTAKOAZ?

Usoak berak 7 gol sartu zizkigun, 7 eta 1 galdu genuen.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Erdialdean amaitzen badugu ondo.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Javier De Pedro.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Miguel Indurain.

EUSKAL HERRIKOAZ?

Miguel Indurain.

JATEKO PLATER BAT?

Entsalada Errusiarra.

EMAITZAK

OGIZUN-AZPEITXI JATETXEA	3-1
A ZE FLAXA ETXAGI-ERROTAGAIN	5-2
ARLOTEAK OILAGORRA-BILDURBAREK OPEL/LAM	7-2
PAGOMENDI-UFALA	1-4
BAR CANALEJAS-MADURA INDUSTRIAS GOL	3-2
AGINASPI-AUTOBEREZI	2-0
SOROPOTROAK-ARTUSAMAK BERGATRANS	2-4
UVE BIKOITZA JAM-EZINLEIKE	3-3
AGIRREBEÑA-ETXAGI	3-4
AGINASPI-HALTZARI	4-4
SOROPOTROAK-ERI	4-1
LA JUVE-ARTUSAMAK BERGATRANS	4-2
NEKROFIKOS-ARI ARI	2-0
GUADALEST-EH BITERRAK	1-5
MRW-NAHIKARI HOOLIGANS	3-3
MRW-TXIPIRON	1-4
NAHIKARI HOOLIGANS-ARI ARI	3-0
CONSTRUCCIONES BERGARA-PATXARAN TEAM	1-5
IGANDEKOAK-MOSKIS	1-6
PJS-NEKROFIKOS	5-3
GUADALEST-FAC	2-3
ETENGABE-PANORAMIX	3-8
OSINTXU-ALDOKA MALDOKA	7-4
ETENGABE-AMILOTX	3-0
PITTIXAK-PANORAMIX	0-2
KOMANDO PIPERRAK-POLIDEPORTIVO TABERNA	2-1
SLO-ARBE KIROLAK	2-9
MANITOU-MATXAKATEGI	3-2

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00: KOMANDO PIPERRAK-AMILOTX • POLIDEPORTIVO
10:00: PITTIXAK-POLIDEPORTIVO TABERNA • PATA NEGRA
11:00: MANITOU-PATA NEGRA • PITTIXAK
18:00: OGIZUN-A ZE FLAXA ETXAGI • ERROTAGAIN
19:00: PAGOMENDI-ERROTAGAIN • JAUJA OH ZEREZOS

Zapatuan kanpoan

13:00: JAUJA OH ZEREZOS-UFALA • ANTLAKETA B.
16:00: AUTOBEREZI-ETXAGI • KAYAK OS JARDINEIROS
17:00: KAYAK OS JARDINEIROS-HALTZARI • AUTOBEREZI

Domekan barruan

09:00: EH BITERRAK-TXIPIRON • ARI ARI
10:00: PATXARAN TEAM-ARI ARI • IGANDEKOAK
11:00: IGANDEKOAK-PJS • MRW
12:00: MRW-MOSKIS • NEKROFIKOS
13:00: GUADALEST-NEKROFIKOS • MOSKIS
16:00: NAHIKARI HOOLIGANS-FAC • MATXAKATEGI
17:00: SLO-MATXAKATEGI • ARBE KIROLAK
18:00: PANORAMIX-ARBE KIROLAK • OSINTXU
19:00: OSINTXU-XURRUPAK • ALDOKA MALDOKA
20:00: ETENGABE-ALDOKA MALDOKA • XURRUPAK

Domekan kanpoan

10:00: AGIRREBEÑA JATETXEA-ERI • AGINASPI
11:00: AGINASPI-ARTUSAMAK BERGATRANS • ERI
12:00: BILDURBAREK OPEL/LAM-ORTZI • BAR CANALEJAS
13:00: BAR CANALEJAS-AZPEITXI JATETXEA • BILDURBAREK
16:00: MONGATXURRA-MADURA • EZINLEIKE
17:00: EZINLEIKE-INDARGORRI • SOROPOTROAK
18:00: SOROPOTROAK-LA JUVE • INDARGORRI

T XINPARTAK

Udalari eskaria

Lagunak Futbito Elkartek Udalari eskaera batzuk egiteko erabakia hartu zuen joan zen asteartean izandako delegatuen batzarrean. Udalak, eskaera horiek (baloi gehiago, jokatzeko ordu gehiago...) onartuko balitu elkarteko kideak eskatutako 3.000 pta.ko igoera ordaintzeko prest azaldu dira. Aurretik, Iñaki Ugarteburu Udaleko kirol teknikaria batzarrean izan zen igoeraren zergatiak eta beste gauza batzuk azaltzeko.

Euskadiko txapelkunak

Ariznoa gimnasia erritmikoko infantil taldeak Euskadiko txapelketa irabazi zuen joan zen astean Altzan jokaturako txapelketan. Taldea Jaione Igartua, Aintzane Narvaez, Alba Maestre, Elisabet Agirre, Amaia Torre, Ane Miren Fernandez eta Azahara Gonzalezek osatzen dute. Entrenatzailea, Alicia de Cesar da.

Behobia-Donostia

Igandean jokaturako den Behobia-Donostia lasterketarako 106 lagunek (antzuolarrak eta bergarrak) eman dute izena Bergarako kirol dendetan. Joan zen urtean 112 korrikalarik hartu zuten parte.

Baqué Txapelketaren azken fasea Udal Pilotalekuan

Gipuzkoako Pilota Federazioak eta Café Baqué enpresak antolatzen duten pilota txapelketaren azkenengo fasea Bergarako Udal Pilotalekuan jokaturako datorren martitzenetik abenduaren 15era bitartean.

Café Baqué torneoan bi maila bereiztu dira pilotarien adinaren arabera, 15-16 urte dituztenak kadete mailan arituko dira eta 17 urtekoak jubenil mailan jokaturako dute. Guztira 32 pilotarik hartuko dute parte: Donostialdea, Tolosaldea, Debaldea eta Urolako zortzina pilotari. Bailara bakoitzetik 4 jubenil eta 4 kadete etorriko dira.

Debaldekoek Donostialdekoen aurka neurtu beharko dituzte indarrak eta Urolaldekoak Tolosaldekoen kontra. Bailara bakoitzeko lehen sailkatuak beste bailarako laugarrenaren kontra jokaturako du. Izan ere, txapelketa honen azken fasea heltzeko lehenengo bailarako kanporaketak gainditu behar izan dituzte pilotariak.

Partiduak, 18 tantura, arratsaldeko 7etan jokaturako dira astearte eta ostegunetan eta galtzen duenak etxera joan beharko du.

Gazteen artean pilota bultzatu

Café Baqué txapelketaren 3. edizioa da aurtengoa eta Iñaki Mirasolain, enpresako Gipuzkoako ordezkariak adierazi digunez, "txapelketa-



Ander Muguruza eta Iñigo Martin txapelketako bergarrak

ren helburua gazteen artean pilota bultzatzea da eta horretarako Gipuzkoako Federazioaren eta BK Eren laguntza ezinbestekoa da. Bestela ezin izango litzateke aurrerateratzen".

Bizkaian 9 urte daromatza torneoak martxan eta hortik irten dira Lejardi, Bazeta eta Agirre bezalako pilotariak. Josetxo Etxeberria Gipuzkoako Federaziokoak Gipuzkoako kadete eta jubenil mailako pilotari onenak ikusteko aukera izango dela azpimarratu du. "Niri adin honetako pilotariak jokatzeko ikustea zabarragoak ikustea baino gehiago gustatzen zait. Ikusiko ditugun pilotariak oso txintxoak dira eta

faboritoen artean Etxeaniz azkoitiarra azpimarratuko nuke jubenil mailan. Sarrera doan izango da eta partidu politikak ikusi ahal izango dira" adierazi du Etxeberriak.

Ander Muguruza eta Iñigo Martin bergarrak

Bergaratik kadete mailan Ander Muguruza eta jubeniletan Iñigo Martin sailkatu dira Café Baqué honetako azken fasearako. Biak aurrelariak dira eta gazteena ezkerrean den bitartean besteak eskumarekin jotzen dio ondoen. Itxaropentsu agertu dira eta etxean jokatzeko dutez paper ona egin nahi dutela adierazi digute.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Zestoa

Preferente maila.

Domeka. 15:45. Agorrosin.

◆ Bergara-Beraun

Ohorezko mailako jubenilak.

Zapatua. 15:30. Ipintza.

◆ Bergara-Usurbil

Emakumezkoak.

Zapatua. 17:15. Ipintza.

SASKIBALOIA

◆ Bergara-Askatuak

Kadete mutilak.

Zapatua. 10:00. M. Lagundia.

◆ Bergara-Aloña Mendi

Jubenil mutilak.

Zapatua. 12:00. Kiroldegia.

◆ Bergara-Alde Zaharra

Senior mutilak.

Zapatua. 16:00. Kiroldegia.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-UPV

Senior mutilak.

Eguakitza. 12:15. Kiroldegia.

◆ Bergara-Aloña Mendi

Kadete mutilak.

Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

◆ Bergara-Urola

Jubenil mutilak.

Zapatua. 17:30. Kiroldegia.

PILOTA

◆ Bergara-Azpeitiko Ilunpe

Kluben arteko txapelketa

Juniorrak banaka.

Eguakitza. 22:00. Pilotalekua.

Eskola kiroleko pilota partiduak ere jokatu dira.

Edu Jauregi

Nizako triatloian parte hartu zuen

Edu Jauregi txikitatik ari da kirola egiten. Igeriketa egiten hasi zen eta ondoren triatloira pasatu zen. Azkenengo lau urteetan triatloia egin barik izan ondoren, irailean Nizako triatloian hartu zuen parte: 4 kilometro igeriketan, 120 km bizikleta gainean eta 30 antxin-txika, 7 ordu eta 41 minututan egin zituen.

- Zela hasi zara berriaz hain gogorra den kirolean?

- Duela 8 urte hasi nintzen triatloian, baina azkenengo lau urteetan ez dut ezer egin. Halere, tartean Donostiako maratoia korritu dut eta kirola egiten jarraitu dut. Aurtun, ordea, denbora hartu eta Nizako triatloia egitea pentsatu nuen, baina ez antzinako planteamenduekin. Helburua ondo pasatzea da, erlojuari begiratu barik.

- Zergatik aukeratu duzu Nizako proba?

- Ikustera joanda nengoen eta asko gustatu zitzaidan. Gainera horrelako distantzia luzerik sekula egin barik nengoen eta aproba egin nahi nuen. 1.600 lagun elkartu ginen eta asteburu osoan zehar sekulako giroa izan zen probaren inguruan. Ostiral gauean "Pasta Party" izaten da eta pasta jateaz gain probako fabritoak aurkezten dituzte. Zapatu arratsaldean partehartzaile guztioi proba azaldu ziguten. Iluntzean bizikleta eta kaskoa dagokizun orduan boxetan

lagatzen genuen eta domekan goizeko 5etan irteeran geunden, lasterketa 7:30etan hasten baitzen.

- Zenbat denbora eman duzu Nizako lasterketa gertatzen?

- Bi hilabete. Halere, lehenago Euskadiko triatloi zirkuitoko lau probetan ibili nintzen. Helburua bukatzea eta disfrutatzea zen.

- Disfrutatu daiteke horrelako kirola egiten?

- Askok korrika egiten sufritu nuen arren. Bestela, erritmo lasaiekin ateratzen eta ondo pasatu nuen. Gainera, lasterke-

tarekin batera oso paisaia politak ikusteko aukera izan nuen, bizikletarekin Itsasoko Alpeetatik pasatu ginen eta oso herri politak ikusi genituen. Probak duen giroa ere bikaina da, partehartzaile gehienak popularrak dira eta lagunak egiteko aukera dago. Merkatuan dagoen material onena ikusteko aukera ere badago, feria bat izaten baita.

- Etorkizunera begira beste helbururik?

- Hurrengo pausua Ironmana egitea da eta Lanzarotekoan parte hartzea gustatuko litzaidake, baina epeak jarri gabe.



"Korrika sufritu arren, Nizako triatloian asko disfrutatu nuen".

"Gustatuko litzaidake Lanzaroteko Ironmanean parte hartzea"



Argazkia: Bitxor Agirrebarrena

Alondigako ikasleak. 1973-74.

Gaur egun desagertuta dagoen Alondiga, herriko ikastetxe ezagunenetakoa izan zen garai batean. Herritar ugarik jaso zuen bertan oinarrizko hezkuntza. Aste honetan Erretiratu Zaharrean agertzen direnak, orain dela 23 urte inguru Alondigan OHoko 3. mailan zeuden 8-9 urteko mutil koskorak dira. Gaur egun 30-31 urte inguru dituzte. Gehienak herrian bizi dira, baina badaude bizitzera kanpora joandakoak eta bat edo beste hilda daude. Kontuak kontu, hauek dira argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara eta goiko ilaratik hasita.

Zutik, goian: Andoni Mujika, Juan Ignacio Etxaniz, Jabier Mujika, Francisco Lopez Luque, Pedro Luis Esain, Isaac Lazkano, Manuel Flons, Jabier Bretaña, Ion Etxabe, Ander Gabilondo eta Andoni Egaña.

Zutik, behean: Manuel Couñago, Imanol Lopez Garin, Iñaki Larrañaga, Jesus Mari Azkarate, Carlos Igarza, Miguel Martinez, Luis Manuel Aguayo, Juan Manuel Garcia, Miguel Albeniz eta Gotzon Alzelai.

Jarrita goian: Alex Madariaga, Jose Mari Barragan, Imanol Rementería, Manuel Ramon Burgos, Carlos Otazua, Don Andres (irakaslea), Bitxor Agirrebarrena, Fernando Barriobero, Angel Cantero eta Jabier Zenitagoia.

Jarrita behean: Patxi Domenech, Patxi Urkiola, Carlos Cachafeiro, Joakin Gonzalez, Iñaki Lazkano, Jose Santiago Vicente, Juan Manuel Canales, Jose Mari Arenaza eta Felix Outeriño.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

SEBASTIAN IMAZ



Milagros eta Sebastian. 26 urte lanean. Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67

JOSE LUIS LETURIA



Mari Angeles eta Jose Luis. 34 urte lanean. Artekale, 5 ☎ 76 11 30

LUIS MARI REZOLA



Luis Mari eta Margari. 11 urte lanean. Matxiategi, 7 ☎ 76 17 63

IGARZA



Alicia eta Jabier. 23 urte lanean. Irizar, 3 ☎ 76 14 12

Bedelkarreko harategiak



Herritarren zerbitzura!!

JOSE MANUEL ZURUTUZA



Jose Manuel. 10 urte Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteaga, 9 ☎ 76 08 68

Amaia eta Ion Mirena



San Pedro, 24 ☎ 76 12 23

losu eta Karmentxu



Zubiaurre, 23 ☎ 76 28 76

LETURIA HARATEGIAK

LAZPIUR




Jabier Lazpiur. Harategiak 82 urte ditu. Komenio, 2 ☎ 76 10 72

URCELAY HARATEGIA



Pello eta Arantxa. 4 urte lanean. Ibargarai, 7 ☎ 76 00 45



**Ez dakigu
mirariak egiten**

Miraria da harriak
ogi bihurtzea,
ardo txarra ardo on,
kafe txarra kafe on.
Mirariak egiten
ez dakigunok
kalitate bikainekin
lan egin behar dugu.

CAFFÈ
BAQUE



Gure kalitatea ez da miraria.